Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2353

12/2011 DEKRETUA, apirilaren 12koa, lehendakariarena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakari funtzioak direla eta lehendakariaren eskumenak eskuordetzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak bere 4. artikuluan jasotzen ditu Jaurlaritzaren Lehendakaritzari dagozkion jarduera-eremuak.

Lehendakariaren urtarrilaren 18ko 6/2011 Dekretuaren lehenengo artikuluaren bitartez n) letra erantsi zitzaion aipatutako 4. artikuluaren lehenengo paragrafoari, Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren jarduera alorrari garapenerako lankidetza alorra gehitzeko asmoz.

Ondorioz, martxoaren 22ko 39/2011 Dekretuaren bidez Lehendakaritzako egitura organikoa eta funtzionala aldatu egin zen; 39/2011 Dekretuaren laugarren artikuluak Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxiki dio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez, erakunde hori sortzeko ekainaren 19ko 5/2008 Legean ezarritako baldintzetan.

Horrela, aipatutako ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 8. artikuluak ezartzen du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakaritza garapenerako lankidetzan eskumena duen sailburuari dagokiola eta lehendakariordetza gaian eskumena duen sailburuordeari. Beraz lehendakariari eta Lehendakaritzaren idazkari nagusiari dagokie aipatutako Agentziako lehendakaritza eta lehendakariordetza, hurrenez hurren, gaur egungo Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura organikoan Jaurlaritzaren kide bati atxikitako funtzio multzoa lehendakariak bere gain hartu behar baititu.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Administrazio Publikoetako organoek eskumenak gauzatzeko eskuordetza eman diezaiekete Administrazio bereko beste organo batzuei.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

2353

DECRETO 12/2011, de 12 de abril, del Lehendakari, por el que se delegan las competencias del Lehendakari en relación con las funciones de Presidente de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

El Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, recoge en su artículo 4 las áreas de actuación que corresponden a la Presidencia del Gobierno.

Mediante el artículo primero del Decreto 6/2011, de 18 de enero, del Lehendakari, se incorporó una nueva letra n) al párrafo primero del precitado artículo 4, para añadir al ámbito de actuación de la Presidencia del Gobierno el área de cooperación al desarrollo.

Como consecuencia, se modificó la estructura orgánica y funcional de Lehendakaritza por el Decreto 39/2011, de 22 de marzo, cuyo artículo cuarto adscribe el ente público de derecho privado Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo a la Presidencia del Gobierno, a través de la Secretaría General de Presidencia, en los términos establecidos en la Ley 5/2008, de 19 de junio, de creación del mismo.

Así, la citada Ley 5/2008, de 19 de junio, en su artículo 8 establece que la Presidencia de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo corresponde al consejero o consejera competente en cooperación para el desarrollo y la vicepresidencia al viceconsejero o viceconsejera competente en dicha materia, de manera que corresponde al Lehendakari y al Secretario General de la Presidencia ostentar la presidencia y la vicepresidencia, respectivamente, de dicha Agencia, ya que en la actual estructura orgánica de la Presidencia del Gobierno, el conjunto de las funciones que por su propia naturaleza están vinculadas a un miembro del Gobierno deben ser ejercidas por el propio Lehendakari.

De conformidad con lo establecido en el artículo 13 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, los órganos de las diferentes Administraciones Públicas pueden delegar el ejercicio de las competencias que tengan atribuidas en otros órganos de la misma Administración.

Administrazio-jarduera ahalik eta azkarrena eta eragingarria izan dadin eta Jaurlaritzaren Lehendakaritzari Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia atxikitzetik sortutako egoera berezia dela eta, beharrezkoa da aipatutako Agentziaren lehendakaritzari atxikitako funtzioen eginkizunak eskuordetzea.

Hori kontuan izanik,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariordea denez Lehendakaritzaren idazkari nagusiaren esku uztea lehendakariari atxikitako eskumenak.

2. artikulua.– Dekretu honen bitartez eskuordeturiko eskumenak, noiznahi galdekatu ditzake eskuordetza hori egin duen organoak.

3. artikulua.– Dekretu honen bitartez eskuordetutako eskumena baliatuta emandako ebazpen guztietan berariaz jaso beharko da zirkunstantzia horren berri eta dekretu hau onartu zeneko eguna eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zenekoa ere zehaztu beharko dira.

4. artikulua.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 12an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Con el fin de lograr una mayor agilidad y eficacia en la actuación administrativa y atendiendo a la especial situación generada como consecuencia de la adscripción de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo a la Presidencia del Gobierno, resulta necesario proceder a la delegación del ejercicio de las funciones atribuidas a la Presidencia de la citada Agencia.

En virtud de lo cual,

DISPONGO:

Artículo 1.– Delegar en el Secretario General de la Presidencia, en su calidad de Vicepresidente de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, el ejercicio de las competencias atribuidas al Lehendakari en relación con la Presidencia de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

Artículo 2.– Las competencias delegadas por el presente Decreto podrán ser objeto de avocación en cualquier momento por el órgano delegante.

Artículo 3.– En todas las resoluciones que se dicten en ejercicio de la delegación de competencias conferida por esta disposición deberá hacerse constar expresamente tal circunstancia, con mención de la fecha de aprobación de este Decreto y su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 4.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de abril de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.